

**GRADU AMAIERAKO LANA (GRALa) EGIN ETA
DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA**

SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA

ARTE EDERREN FAKULTATEA



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA (GRALa) EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA

1. SARRERA

Dokumentu honen helburua da Arteko Gradu Amaierako Lanaren ezaugarriak eta berezitasunak egokitzea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko esparru Arautegira. Azken hori UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2023ko azaroaren 14an onartu zen, eta 2024ko apirilaren 10ean argitaratu zen EHAAn.

Dokumentu honetan jasotzen dira GRALaren definizioa eta bete behar diren jarraibideak haren prestaketan, defentsan, kalifikazioan eta tramitazio administratiboan. Arautegi hau osatzen da UPV/EHUko «Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegia»n jasota dauden beste arau eta prozedurekin, alegia, ebaluazio sistema, kredituen aitortpen eta transferentzia eta ikasleen mugikortasuna gobernatzen dituzten arauekin.

2.- GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERAZ.

Gaur egungo ikasketa planean, GRALa 4. mailako nahitaezko irakasgai bat da, eta 18 ECTS ditu. GRALa egin aurretik, ikasle bakoitzari zuzendari bat esleituiko zaio.

1. Gradu Amaierako Lana egiteko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria, azterlan, artelan edo artelanen corpus original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira. Horretarako, ikasleak bere sortze prozesuaz gogoeta egiteko eta haren berri emateko behar duen material guztia (dosiera eta artelana) bildu eta aurkeztuko du. Era berean, egindakoa (dokumentuak eta zati praktikoa) epaimahai baten aurrean erakutsi eta defendatuko du.
2. GRALak egile bakar bat izan behar du: ikasle bakoitzak, bakarka, egin behar du bere GRALa (planteatu, garatu, erakutsi eta idaztea), eta ezin da beste inorekin elkarlanean egin. Lan autonomoa da, ikasle bakoitzak bere ekimenez egingo duena eta bere gain hartuta lana garatzeko erantzukizuna. Horretarako, zuzendari baten laguntza izango du, zeinak bideratuko duen lana egiteko eta defentsa prestatzeko prozesua.
3. 2.- GRALa titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak –normalean, bere aztergaiari (proiektuari, artelanari...) buruzkoak– bilatzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan, gogoeta eta iritzia horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izanda.
4. GRALa UPV/EHUren zeharkako gaitasunen katalogoan aipatzen diren zeharkako gaitasunak eskuratzea ere bideratuta egon beharko da, eta arreta berezia eskainiko dio diziplina bakoitzak jasagarritasunari eta balio demokratikoei eta bizikidetzari egin diezaiokeen ekarpenari.
5. GRALa graduko azken fasean defendatu eta ebaluatu ahal izango da, ikaslea behin matrikulatu ondoren ikasketa planean geratzen zaizkion irakasgai guztietan.

6. Gradu Amaierako Lana jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, ikaslearen Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, beraren onarpenarekin eta indarreko legerian zehaztutako baldintzen arabera.

3.- GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IRIZPIDE NAGUSIAK

1. Gradu amaierako lanak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:
 - a. UPV/EHuren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen irudi baitira.
 - b. Hizkuntza inklusiboa erabiltzea eta genero ikuspegia txertatzea lanetan. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (adibidez, praktiketatik) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, pertsonen buruzko informazioa erabiliko da bakar-bakarrik akademikoki justifikatuta badago; eta, hala eginez gero, modu anonimoan erabiliko da, eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu bermatuko da.
2. Ikastegiek zainduko dute gradu amaierako lanak egiten direla UPV/EHuren i3 hezkuntza ereduaren arabera. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatuko dute egitea benetako beharrei edo erronkei buruzko gradu amaierako lanak, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, EHUagenda 2030rekin lerrokatutako gradu amaierako lanak egitea bultzatuko dute, eta lan esparru horien berri emango dute irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.
3. Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarriko helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta GJHeK osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen dituzke.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- giza eskubideen eta oinarritzko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoen ere.
- Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
- Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, EHUagenda 2030 erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifiko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

4.- MATRIKULA ETA DEIALDIAK

1. GRALerako matrikula unibertsitateak matrikula egiteko ezarriko duen epe orokorrean egingo da, edo kasuan kasuko ikasturtean zehar, esleituta dituen kredituetarako ezarritako prezio publikoak ordainduta. Matrikula hori egiteko, ikasleak bete egin beharko ditu GRALaren defentsa egin ahal izateko baldintzak. Edozelan ere, Gradu Amaierako Lanaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.
2. Matrikulak eskubidea emango du bi deialdi ofizialetarako ikasturte bakoitzean. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
3. Ikasleek GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute.
4. Ikasturte bakoitzean GRALen defentsarako epeak, ahal dela, hauek izango dira:
 - UZTAILA: ohiko deialdia.
 - IRAILA: ezohiko deialdia
 - URTARRIL-OTSAILAK: salbuespeneko deialdia, graduako irakasgai guztietan matrikulatuta dauden eta GRALa defendatzea falta zaien aurreko ikasturteetako ikasleentzat. Matrikulazioari dagokionez, deialdi hau GRALa defendatuko den ikasturteari lotuta dago. Adibidez, 2020ko urtarrilean egindako defentsa 2019/2020 ikasturteari lotuta egongo da. Hortaz, graduako gainerako irakasgaiekin gertatzen den legez, GRALaren matrikulako tasak 2018/2019 ikasturtean ordaintzeak ez du eskubiderik emango defentsa 2020ko urtarril-otsailetan egiteko.
5. Ikasleak karrera amaierako aparteko deialdia eskatu ahal izango du Graduako Ikasketen Arautegian zehaztutako baldintzetan.
6. GRALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraikiz itxi beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraikiz administrazio zerbitzuei helaraztea. Bestalde, ikastegiko zuzendariaren edo dekanoaren ardura da artikulua honetan jasotakoa bete egiten dela zaintzea.

5.- IZENA EMATEA, ZUZENDARIA ESLEITZEA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA.

1. GRALak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.
2. GRALaren zuzendarikide izan ahalko dira unibertsitatearekin lotura daukaten doktoreak eta doktorego aurreko kontratua daukatenak (baldin eta kontratuak horretarako aukera ematen badu), baldin eta zuzendarikide bat badago graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.

3. Ikasleak, GRALa egiteko eta/edo zuzentzeko hitzarmen espezifiko baten barruan edo prestakuntza dualaren zein txandakako prestakuntzaren barruan, lan osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, zuzendaria unibertsitatetik kanpokoak izan ahalko da, baina kasu horretan zuzendarikide bat egon beharko da.
4. Arte Ederren Fakultateko Gradu Amaierako Lanaren Batzordeak prozedura bat zehaztuko du Gradu Amaierako Laneko zuzendariak esleitzeko. Esleitutako zuzendarien behin betiko zerrenda behin argitaratuta, abenduan epe bat zabalduko da (ikasturteko egutegi akademikoan agertuko da noiztik noiz artekoa) ikasleek GAUREn sar dezaten GRALerako proposamena.
5. Ikasleek gaiak proposatuko dituzte, eta GRALen Batzordeak tutoreak esleitzeko sistema zehaztuko du, kontuan hartuta ikasle kopurua eta titulazioan eskola ematen duten irakasleen kopurua.

6.- ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BERE LANA AITORTZEA.

1. Irakasle zuzendariaren ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.
2. Zuzendariaren eginkizuna da lanaren garapena ontzat ematea eta gainbegiratzea.
3. Lanaren zuzendari irudiak aitortpena izango du unibertsitatearen kasuan kasuko arautegian zehaztutakoari jarraikiz.
4. Zuzendariak laguntza emango dio ikasleari:
 - lanaren egitura zehazteko.
 - Iturri egokiak aukeratzeko eta erreferentziak zuzen egiteko.
 - Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari. Halakoetan, aholkuak emateaz gain, azalduko dio nola bete behar diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak (9. artikuluan aipatzen direnak).
 - Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (adibidez, praktikatik) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari, eta azalduko dio zer egin behar duen informazioa anonimoa izan dadin eta bermatzeko inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu.
 - Lana idazteko.
 - Epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpena prestatzeko.

7.- LANA KANPOKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN EGITEA

1. GRALa unibertsitatetik kanpoko erakunde batekin egin ahal izango da. Horretarako ezinbestekoa izango da lankidetzaren hitzarmena sinatzea.
2. Lankidetzaren hitzarmen horiek arautegi honetan zehaztutakoari jarraikiz egingo dira, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiko 25 f) artikulua babesean (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

Lankidetzaren hitzarmena errazteko, Gradu Batzordeak hitzarmen ereduak onartuko ditu; arautegi honi erantsiko zaizkio eta UPV/EHUko horiek erabiltzea sustatuko du. Hitzarmena bat badator onartutako ereduaren batekin, ikastegiak zuzenean sinatu ahal izango du. Ereduarekin bat ez badator, ikastegiak gainbegiratu egingo du edukia bat datorrela arautegi honekin, eta, ondoren, sinatu egingo du.

Hitzarmena sinatuko dute erakunde lankideko kide batek eta ikastegiko zuzendaritza taldeko kide batek (batak zein besteak hitzarmena sinatzeko gaitasun nahiko izan behar du).

3. GRALa beste erakunde batean eginez gero, alde aurretik zehaztu egin beharko da konfidentzialtasuna dela-eta mugarik dagoen emaitzaren bat aurkezteko edo argitaratzeko edo lana jendaurrean defendatzeko. GRALa egitean erabiliko bada, modu justifikatuan eta arrazoi akademikoengatik, erakundearen sortu den pertsonen buruzko informazioa, modu anonimoan erabiliko da eta bermatuta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu; eta lan idatzian azalduko da zeintzuk neurri hartu diren hori ziurtatzeko.

8.- ONDORIO ETIKOAK DITUZTEN GRALak eta UPV/EHUko ETIKA BATZORDEAREN JARRAIBIDEAK BETETZEA.

1. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lan kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari. Tutoreak egoera identifikatu beharko du eta arduratuko da ikasleak balora dezan, bere aholkua erabiliz, inplikazio etikoen garrantzia, eta bete ditzan lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak, UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen webgunean ikusgai daudenak.
2. Aipaturako kasu horietan, UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak.
3. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (adibidez, praktiketatik) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lan kasuan, 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.
4. Ondorio etikoak dituzten lan defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere,

ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

9-. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA.

Gradu Amaierako Lanaren (GrAL/TFG) aurkezpen eta defentsarako prozedura administratiboa bi unetan antolatzen da. Haietan banatzen dira ikaslearen eta tutoretzaren erantzukizunak: Ikaslearen ekintza bakoitzak tutoretzaren esku-hartze bat eskatzen du ondoren.

1. Fasea — GrALaren izen-ematea eta tutoretzaren balidazioa

1. **GrALaren izen-ematea GAUR URDINEAN (ikaslearen erantzukizuna).** Ikasturteko egutegi akademikoan ezarritako epean, ikasleak GrALaren izen-ematea egin behar du GAUR Urdina sisteman.
2. **Izen-ematearen balidazioa (tutoretzaren erantzukizuna).** Tutoretzak balidatu egin behar du ikasleak GAUR Urdinean egindako izen-ematea. Balidazio honek baieztatzen du gaia, proposamena eta esleipena egokiak direla eta hurrengo fasera igaro daitekeela. Tutoretza arduradunak arreta izan behar du epeei dagokienez; balidaziorik gabe, ikasleak ezin izango du prozedurarekin jarraitu.

2. Fasea — Defentsa-eskaera, bateragarritasun-txostena eta lanaren igoera

3. **Defentsa-eskaera (ikaslearen erantzukizuna).** Dagokion epean, ikasleak GrALaren defentsa-eskaera egin behar du GAUR Urdinean.
4. **Defentsarako txostena eta baimena (tutoretzaren erantzukizuna).** Ikasleak eskaera egin ondoren, tutoretzak GAUR Urdinean igo behar ditu balorazio-txostena eta GRALa defentsarako baimendu. Txosten hau gabe, prozedurak ezin du aurrera egin. Tutoretzaren erantzukizuna da tramite hau ezarritako epean osatzea.
5. **GrALa formatu digitalean ADDIn igotzea (ikaslearen erantzukizuna).** Eskaera kudeatu ondoren, ikasleak GrALa ADDI unibertsitateko gordailu instituzionalean igo behar du, egutegi akademikoan ezarritako epeei jarraituz. Entrega digital hau **derrigorrezkoa** da eta lanaren **entrega ofizialtzat** jotzen da.

Dosierraren azalean datu hauek jarri beharko dira:

- **ARTE EDERREN FAKULTATEA**
- **UPV/EHU**
- **Gradu Amaierako Lana. Arteko Gradua**
- *Lanaren izenburua*
- Ikaslearen izen-deiturak.
- Tutorearen izen-deiturak eta sailaren izena.
- Ikasturtea.

10.- GRADU AMAIERAKO LANAREN DEFENTSA

1. **ADDIn egindako entrega digitalaren osagarri gisa, defentsa egunean ikasleak nahitaez eraman behar du GrALaren kopia inprimatu bat**, tribunalaren esku geratuko dena defentsa-ekitaldian erreferentzia-dokumentu gisa.
2. Ikasleak modu presentzialean egingo du defentsa, ekitaldi publikoan, horretarako izendatuko den egunean eta tokian. Ikastegia saiatuko da ikasleei ahalik eta baldintzarik egokienak bermatzen GRALaren aurkezpenerako. Ikasleak eskakizun berezirik badu, GRALA saileko idazkaritzan uztean adierazi beharko ditu, eta, betiere, defentsa baino lehenago.
3. Ikaslea mugikortasun programa batean badago eta programa horretan dagoela egiten badu GRALA, defentsa beste unibertsitatean egin ahal izango du, betiere, bi unibertsitateek aldezturik horretako baldintzak zehaztuta badituzte.
4. Titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera, graduaren eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu beharko da lana, guztia hizkuntza berean, baldin eta hizkuntza horiek dakizkiten epaimahaiak osatu ahal badira. Egiaztatze memorian besterik adierazi ezean, GRALA autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.
5. GRALA aurkeztu eta defendatzeko ekitaldian, ikasleak epaimahaiaren esku jarriko du obra, zuzenean hautemateko moduan. Performanceen kasuan, epaimahaiarekin adostu beharko da emanaldirako ordua. Gainera, ikasleak lanaren ahozko defentsa egiteko gehieneko denbora tarte bat izango du (15 minutu), eta gero epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die.

11.- EPAIMAHAIIA

1. Sailek, titulazioko koordinatzaileek eta fakultateko GRALen Batzordeak elkarlanean eratuko dituzte epaimahaiak, kontuan hartuta matrikulatutako ikasle kopurua eta egindako GRALen gaiak. Epaimahaiak eratzean, ahalegina egingo da kontuan hartzeko bai hizkuntza irizpideak eta bai irakasleak izatea GRALetan landutako gaien hurbileko arloetakoak. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetarako.
2. Epaimahaiak hiru kide izango ditu eta gutxienez, ordezkari bat. Guztiak izango dira graduako titulua ematen duen ikastegiko irakasleak.
3. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira eta horiek izendatzeko irizpideak irakasle kategoria eta antzintasuna izango dira. Epaimahaiburuak eta idazkariak zeinek bere karguan jardungo dute beti epaimahaian.
4. Salbuespenez, eta behar bezala justifikatutako arrazoiek hala eskatzen dutenean, ikasleak TFGaren defentsa online egiteko eskaera aurkeztu ahal izango du. TFG Batzordeak eskaera bakoitza banaka aztertuko du, eta modalitate hori beharrezkotzat jotzen bada, defentsa telematikoa baimenduko du.

12.- EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.

1. Obra *in situ* behin ikusita, ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena irakurritakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du, Gradu Amaierako Lanaren Gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraikiz. GRALaren behin-behineko kalifikazioa defentsa amaitu eta gehienez 24 orduko epean argitaratuko da.
2. Suspentso jarritz gero lanari, epaimahaiak txostena helaraziko dio ikasleari, lana hobetu eta berriz ebaluatzea aurkezteko aholkuak adierazita. Zuzendariari ere bidaliko zaio txostenaren kopia bat.
3. Kalifikazioa epaimahaiak zehaztuko du, eta 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

aurkezteke (AKE)

0 - 4,9: suspentso (S)

5,0 – 6,9: nahikoa (N).

7,0 - 8,9: oso ongi (O)

9,0 - 10: bikain (B).

Deialdi batean lana aurkezteko eskubideari uko eginez gero, “aurkezteke” adierazi beharko da.

Ikasturteko GRAL guztiak kalifikatu ondoren, ikastegiak “ohorezko matrikula” eman ahal izango die 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, baina, betiere, gehienez ere Gradu Amaierako Lanaren defentsan kalifikaziorik onena lortu duten ikasleen %5ari. Lan batek ohorezko matrikula merezi duela uste dutenean, epaimahaiak eskaria egin beharko diote fakultateko zuzendaritzari, eta, proposatutako kopurua handiagoa bada arautegian ezarritako ehuneko hori baino, hark erabakiko du. Halakoetan, proposatutako ikasleen espedienteko batezbesteko nota izango da kontuan hartuko den irizpide nagusia.

4. Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arauari jarraikiz egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren berrikuspena lehenengo instantzian epaimahaiak berak egingo du, eta bigarren instantzian ikastegiko Erreklamazio Batzordeak ebatziko du; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administrazioari.

13. ANALISIA ETA HOBEKUNTZA

Ikasturtea amaituta, Akademia Antolakuntzako dekanordeak txosten bat aurkeztuko du GRALei buruzko datu nagusiak bilduta:

- GRALa egiteko eskarien kopurua.
- Defendatutako GRALen kopurua.
- Zuzendarien zerrenda eta gidatutako GRALen kopurua.
- GRALeke epaimahaietan parte hartu duten irakasleen zerrenda.
- Gorabeherak eta oharrak.
- Hobetu beharrekoak.